

1994ko otsailak 18

224. zenb.

PRESS

ARRASATE

Elkarrizketa

**Jon Aranbarri
ballet dantzaria**

**Testigoen
testigantza**

antzak

Larunbata 19an
Gaueko 10,30etan
Prezioa: 700 PTA
Amaia antzokian

Kakaturia Berdea

Arthur Schnitzler

Zuzendaritza Mario Gas

ARTEszene

GIPUZKOAKO TEATRO PUBLIKOA
TEATRO PUBLICO DE GIPUZKOA

ARRASATEKO
UDALETXEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Turismo Departamentu
Departamento de Cultura y Turismo

Aurpegia jarriaz, egizu

hauterietako asteartea pasa da eta, aurpegian pintura arrastorik aurki dezaketoraindik, atzoko mozorroaren oroimen bezala. Egun batez, transformatu egiten gara. Egunero-egunero darabilgun erropa alde batera utzi eta gure barneko desioak ateratzen ditugu kanpora mozorro hauen bidez, urteko ia beste egun guztietan errepremitzen ditugun horiek. Eta hori ez da hain gauza txarra, ez, baina badauka azpiko eta barneko beste zerbait, ordea: Ez garela gure desio eta gogoek bultzatutako gauzak egitera ausartzen. Oso errepremituta bizi gara.

Legeak dira lehenengoko traba. Itxuraz herri multzo oso baten onerako eginda dauden lege horiek. Baina puntu hau ere kontutan eduki arren, badago nire ustez, hau baino gogorragoa/izkutuagoa eta gainera idatzitako gabekoa (idatzita egoteak gauza bat justuago edo ez egiten ez duen arren) den beste bat: nolako itxiak garen eta nolatan (oso gutxitan) garen

gai, gutaz besteek zer pentsatuko duten ahazteko. Hau lortu arte, ezin gara pertsona bakoitzaz aske izan (behintzat bere "prejuizio" horiengan) eta hori (ere) borrokatu behar dugu. Jendea beldur da; baina ez dakit, zeren beldur? Santa Agedara eramango duten beldur edo? Koldar batzuk gara, bai, orokorrean behintzat.

Argi dagoena da joera limitazio geldiezin hauek gero eta gehiago gutxitu/murriztuko duela "mass-media" honen barrutik irteten den jende kopurua. Eta jendeak besteenaz arduratzeko daukan arrazoia oso ximplea da: Bakoitzarena, berea, izkutatu/ahazteko, besteena atera eta kakaztu beharra.

Has gaitzen gure barneko mugak apurtzen, hori da edozertarako lehenengoko pausoa.

IKER BARANDIARAN



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publikatzailea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketatzailea:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorna, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Itaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizun.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Arantzazu Loidi.



Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkuntz bereziera)

Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE



**Alkoholarekin arazoak
daukazu?**

**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik Setara.**

Tfnoa: 79 26 99



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

....
**Autopistaren
aurka**

Maltzaga-Urbina autopistaren aurka egoteko argudio batzuk:

a) Deba Bailarak ez du autopista beharrik. Deba Bailarako errepideetako komunikazioek hainbat berrikuntza behar dituztela aitortzen dugu. Baina Gasteiz-Galdakao ibilbidea edota N-1 errepidearen alternatiba izango den ardatz internazional bihurtuko den autopista edota bide azkarrak ez dute behar hori asetzen. Laburbilduz, bailararen beharrak aseko dituen errepidea behar dugu eta hau da egungo bidearen inguruan hobekuntzak egiteko proposamenera bultzatzen gaituen arrazoia.

b) Deba Bailarak ez du zidor izan behar. Ikuspuntu zeharo teknikitik begiratuta N-1 eta Gasteiz-Galdakao-Behobia ibilbidearen artean erdibideko ardatz alternatiboa egiteak ibilbide luzeko trafikoaren zeharkatzea laburtuko luke epe motzera. Hala ere, epe erdira oinarriko ardatzean zamatea suposatuko luke. Honela, Debako korredorea martxan jarri eta urte gutxitara, beharrezkoa litzateke karril suplementarioez hornitzea edota bestelako neurriak ezartzea honek gainezka egitea nahi ez badugu.

Beste herrialde batzuetako esperientzietan ikus dezakegunez, zidorrek hasiera batean denbora murrizketa ekartzen dute, baina bere erabilera areagotzen den neurrian bidea kolapsatzen hasten da, denbora murrizketa nabarmenki gutxitzen da, erlatibizatu egiten da desagertu arte.

c) Bailarako garapen ekonomikoa ez dago bide azkarrari lotuta. Autopista bat izatea bailararen garapen ekonomikorako ezinbestekoa dela pentsatzea sinpleegia da.

Argiak izan gaitezen, bailarako betiko sektore ekonomikoak lur jota badaude ez da infraestruturaz faltagatik, beste hainbat faktoregatik baizik (ezin dute teknologia berri, material, produktu... aurrean konpetitu).

Deba Beheak aspaldidantik dauka A-8 autopista eta hala ere ezin esan bere egoerak hoberantz egin duenik. Laudioko kasua...

d) Obra hau ikuspuntu ekologistatik onartezina dela uste dugu Eguzkin.

Bailara honek errespetu askoz handiagoa behar duela uste dugu, kontutan izan behar baitugu bertako oinarriko lurreen batz besteko zabalera ez dela 100 metro baino gehiagokoa, tarte zuzen luzeena ez dela 200 metrora iristen, bailara guztia zeharkatzen duen ibaiak 20

m inguruko ohantzea duela, bailara urbanistikoki gainezka dagoela eta gutxi badira ere, balore ekologiko-paisajistiko handiko aldeak dituela.

e) Ezin dugu Bilbo-Behobiako peajea alde batera utzi. A-8ko peajearen kontzesioa 2003 urtean amaitzen da, Eusko Jaurlaritzak 2020 urtera luzatu nahi du maniobra honekin Maltzaga-Urbina autopistaren gastuen zati bat ordaindu asmoz.

Eguzkik peajearen liberalizazioaren beharra berrexijitu nahi du, herriak egingdako eskaerari eta dagoen helburuari erantzun asmoz.

Kontestu honetan zera jakin nahi dugu: Ba al da Euskal Herrian gaur egun A-8aren liberalizazioa baino ekologikoki kalte gutxiago egiten duen, egiteko errazagoa den, efikazagoa eta demokratikagoa den trafiko neurririk?

f) Amaitzeko eta erreflexio gisa:

Eusko Jaurlaritzak Meca-entrepesari eskatutako ikerketa batean Maltzaga-Urbina autopistaren bideragarritasun eza azaltzen dela gogoratu behar dugu.

Honelako obra erasokorren aurrean, alternatiba garrapio publikoa potentziaztea dela berretsi nahi dugu.

EGUZKI (EUSKADIKO ANTI-NUKLEAR ETA EKOLOGISTAK)

Zure ustez nahikoa etxe eraikitzen da Arrasaten?



Maria Lasagabaster
Pentsionista (71 urte)

Nik pentsetan dot Mondrauen etxe larregi dauzela. Hamen jentie kanpora doie eta etxiek sobra egon bihedie.



Eneko Blanco
Ikaslea (18 urte)

Gutxi ezagutzen dut asuntori. Nik dakidan bakararra da oso garesti daudela.



Antoni Uribarren
Etxekoandrea (68 urte)

Nik kostruziñuen asuntuen entzunda dauket hamendik bost urtera geixao falta ingo dauela.



Felipe Zabaleta
Langabezian (53 urte)

Uste dut gutxitxo eraikitzen direla. Eta gainera, daukaten prezioekin, gazteek ilun daukate benetan.



Arantxa Tena
Etxekoandrea (40 urte)

Egiten direnak garestiak dira. Arrasateko jende normalarentzat eskuragarriagoak diren etxeak egin beharko lirateke.



Jon Jauregi
Textileko langilea
(60 urte)

Itxura baten pentsetan dot nahikue eitten dabitzela. Gehixao ez dot pentsetan bihedanik.




Maria Martinez
Etxekoandrea (52 urte)

Egiten ari direnekin, nahikoa behar du, jendea alde egiten ari da eta. Gero, etxe huts asko dago, jende gaztearentzat libre egon beharko liratekeenak.



Balentin Mondragon
Kontablea (64 urte)

Nik uste dot gehixao bihedo zala. Ondikan jente asko dao errentan eta pisu barik.



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



José Angel Iborra

Tfno mugikorra: 908-77 08 56

Arrasate Pasealekua, 12 Bis
Tfnoak: 79 34 23 / 79 98.94

Telemezua-doaneko deia:
900595959 - Bazkide ZnK: 400438

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguaiatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Nirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 4
 Egunez eta gauzez: Mozos, Pedro Deunaren.
 Egunez 22.00ak arte: Inizar, Erguin.

Larunbata 5
 Egunez eta gauzez: Camacho, Oxirondo.
 Egunez 22.00ak arte: Amezua, Santamarina.

Igandea 6
 Egunez eta gauzez: Camacho, Oxirondo.
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz, Magdalena.

Astelehena 7
 Egunez eta gauzez: Puy, Barrenkale.
 Egunez 22.00ak arte: Morales, San Andres.

Astearte 8
 Egunez eta gauzez: Guallar, San Antonio.
 Egunez 22.00ak arte: Azkoaga, Ferrerías.

Asteazkena 9
 Egunez eta gauzez: Estella, Matxiategi.
 Egunez 22.00ak arte: Español, Iturriz, 17.

Osteguna 10
 Egunez eta gauzez: Mozos, Pedro Deunaren.
 Egunez 22.00ak arte: Corcuera, Musakola.

18 OSTIRALA

ZINEA

"Un Mundo Perfecto". 7etan eta 10etan.

MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSAK

Larunbatean Bilbon egingo den manifestaziorako autobusak antolatu ditu Arrasateko ELA sindikatuak. Autobusa arratsaldeko 4etan aterako da, bulegoa dagoen tokitik. Autobusez joan nahi baduzu dei egin ELAko bulegora. Tif: 794509.

UN MUNDO PERFECTO

Butch Haynesek (Kevin Costner) ihes egin berri du, armak erabiliz egindako lapurretarengatik 40 urteko kondena betetzen ari zen kartzelatik. Ihesaldian 7 urteko haurra ere bahitu du. Bitartean Garnett (Clint Eastwood) polizia ofiziala eta bere laguntzaile taldea atzetik ditu. Garnettek atxilotu zuen Haynes lehenengo aldiz gaztea zela eta orduan epai gogorra ezarri zioten bere bizitza zuzentzeko.

19 LARUNBATA

ZINEA

"Un Mundo Perfecto". 5etan 7.30etan eta 10etan.

PAKEAREN ALDEKO OTOITZALDIA

Arantzazun, eguerdiko 12etan. Arrasatek autobusak aterako dira goizeko 11etan San Andrés eta Garibaitik.

ERAKUSKETA BUKAERA

Arte ederretako ikasleen erakusketa ikusteko azken eguna. Goizez 12etatik ordu 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

AEDko LUDOTEKA IBILTARIA

Musakolako alkatetzan, Maixu Aranbarri plazan. Goizeko 10.30etatik ordu bata 1'erdietara. OHOk 1.mailatik 8.mailara arteko umeentzat.

MANIFESTAZIOA

ELA eta LABek deituta. Lan harremanetarako euskal esparruaren alde. Bilboko Sagrado Corazónetik aterako da arratsaldeko 5.30etan. Arrasateko ELAk autobusak antolatu ditu.

ANTZERKIA

Arthur Schnitzler-en: "Kakatur Berdea". Arteszena taldearen eskutik. Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera 700 PTA.



20 IGANDEA

ZINEA

"Un Mundo Perfecto". 5etan 7.30etan eta 10etan.

ENPRESA MUNDUKO IDEIEN V LEHIAKETA

Nori zuzendua: sustatzailerie, banaka edo taldean aurkezten direnei, Gipuzkoan jaio edo bizi direnei, lantegi edo enpresei. Lehiaketaren helburuak: enpresa munduko asmoak garatzeko eta sortzeko bideak ireki. Saria: 3.000.000 PTA. Izenematean azalpenezko txostena eta norberaren datuak aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago nahi baduzu dei egin Eibarko Udalera, 116845.

MEDIATEKA

CIMeko mediateka zabalik dago egunero, arratsaldeko 5etatik 8etara, asteartetan salbu. 16 urtetik gorakoentzat. Prezioa, 2.000 PTA urte guztirako.

21 ASTELEHENA**ZINEA**

"Un Mundo Perfecto". 7etan eta 9.30etan.

HARATUZTEAK 1994

Argazki rallyko argazki onenen erakusketa Harresi Aretoan. Otsailaren 24tik martxoaren 6a bitartean. Egutero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegune-tan goizez, 12etatik ordu 2etara eta arratsaldez, 6etatik 8etara.

"KAKATUA BERDEA"

Larunbatean, Amaia antzokian, gaueko 10.30etan.

**22** ASTEARTEA**ZINEA**

"Un Mundo Perfecto". 7etan eta 9.30etan.

INTSUMISIOAREKIN BAT

Insumisioarekin bat gizarte plattformaren proposamen aurkezpena. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Arrasateko Antimilitaristek antolatuta.

23 ASTEAZKENA**FAMILI ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUKO IKASTAROA**

Autoezagutza eta asetibitate ikastaroa, eguneroko estresa gaintzen ikasteko eta gure nahiak diren bezela azaltzen laguntzeko. Iraupena 14 ordu. Ostegunero 6.30etatik 8.30etara. Gaur egungo literatura unibertsalari buruzko ikastaroa, idazketa eta testu komentaketa. Iraupena 26 ordu. Asteartetan, 6.30etatik 8.30etara. Ahozko eta idatzizko espresio tekniken ikastaroa, ortografia, sintaxia, morfologia, curriculumak nola idatzi... irakatsiko da. Astelehen eta asteazkenetan, goizeko 9.30etatik 11.30etara edo arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara. Informazio gehiago nahi baduzu dei egin 790459 telefonora.

24 OSTEGUNA**AEDko BATZAR NAGUSIA**

Monterron kultur etxean. Arratsaldeko 7etan.

HARATUZTEAK 1994**ARGAZKI RALLYKO SARI BANAKETA**

Harresi Aretoan, arratsaldeko 7etan.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**

Eskola Politeknikoaren 50. urteurrenaren barruan. Otsailaren 21etik 25 arte. Ikusgai: eskolako argazkiak, dokumentuak... Eskola Politeknikoko zerbitzu zentraletan. Goizez 8.30etatik 12etara eta arratsaldez 2.30etatik 6etara.


“Udaletxeok, Administrazioak hiritarraren aurrean duen lehendabiziko frentea gara, hiritarra Udaletxera etortzea normala da, hurbilen dagoen katebegia delako, baina gero Udaletxeak bitarteko gutxi du hiritar horri erantzun serio bat eman ahal izateko, konpetentziarik ez duelako. (...)

Instituzioen artean, beste fenomeno bat ari da gertatzen: arlo desberdin guztietatik atal txiki berriak ari dira Udaletxeen ardurapera erortzen: ingurugiro eskolak, ongizatean pobrezia planak, drogomenpekotasun arazoak, hirugarren adina... konpetentzia batzuk isilpean bezala ari dira Udaletxera pasatzen eta horiek karga handiagoa ekartzen dute. (...)

Azken finean administrazioa dena da administrazio bat, eta ezin dugu ahaztu hiritarren aurrean Udala, Jaurlaritza edo Diputazioa, bat izan behar direla eta erantzukizun komun bat daukagula (...)

Gure bailara, azpiegituren aldetik ahaztuta egon dena, bapatean azpiegitura denak bertan egin behar dira”.

(Kanpazarko Tunelaren egitasmoa atzeratu izanaz) “Kaltegarria izango da Durangalderako, eta bereziki Deba Garairako, Bilbo aldearekin dugun lotura, portuan gora eta behera ibili edo tunel txiki batekin pasatzeak, izugarritzko aldea edukiko luke”.

Xabier Zubizarretak 94-2-10 Goizean Behin 

“Astoa animaliarik zintzo eta argienetakoa da, patxadan eta pazientzian eredu. Behar bada, gizakiok bengantza hartu nahi izango dugu astoaren burugogorkeriaren aurrean, batzuetan egoki ikusten ez duen agindu bat betetzea baino egurreta bat hartzea nahiago izaten duelako? (...)

Euskal Herriko baserrietan eta gizateria guztiarentzat egindako zerbitzu guztien aurrean, nik eskerrak ematen dizkiot (astoari) eta ‘ohorezko diploma’ handi bat eman nahi diot, eta animalia horren kontrako edozein mespretxuzko hitz gaitzetsi egiten dut”.

Klara Elkorobarrutiak 93-2-15

egin

Zein izan da zuen bidaiaren helburua?

Gu gales hizkuntzaren alde borroka egiten duen nazio mailako herri mugimendu batetako partaideak gara, Cymdeithas yr Iaith Gymraegekoak. Taldea 1962an sortu zen eta ordutik taldeko bi mila aktibista inguru Ingalaterrako gartzeletatik pasatu dira, nahiz eta taldeak ez duen bortxakeriarik erabiltzen. Mugimenduaren helburuak hizkuntzaren ofizialtasuna, hezkuntza autonomia, etxe eta enpresen erosketa kontrolatzeko politika nazionala, independentzia eta demokrazia dira. Bidaia honekin, euskararen egoera sakonago ezagutu nahi izan dugu eta era berean, hemengo esperientziak ikasi eta Euskal-Herriko lagun eta erakundeekin harremanetan jarri.



Elin Jones

Cymdeithas yr Iaith Gymraeg-eko partaidea

Ikusi dugunaren arabera esan dezaket, Galesen udaletxeek ez dituztela hemengoek dituzten aukerak. Han proiektuak aurrera eramateko aukerak eskaxagoak dira eta eskualde mailan ere, dirua falta zaigu ekintzak antolatzeke.

Bestalde neuretzako konkretuki, bidaia honek badu beste helbururik. Ni, Europear Komunitateak finantzatzen duen Mercator izeneko proiektu batetan ari naiz lanean. Proiektu honetan lan egiten dugunok, hizkuntza minorizatuen inguruko informazioa batzen dugu. Galesen adibidez, hizkuntza hauek dituzten komunikabide sareei buruzko ikerketa egiten ari gara. Ikerketa egin eta datu basea osatzen ari gara; gero nahi duten guztien eskura jartzeko. Horregatik izan da garrantzitsua niretzat, ARRASATE PRESS eta ATB bezelako herri komunikabideak bisitatzea.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Atxiloketak Musakolan

Ertzaintzak ustez drogarekin erlazionatutako bi lagun atxilotu zituen astearte arratsaldean Musakolan. J.P.N. 24 urteko arrasatearrari eta V.V.J. adin bereko madrildarrari hatxisa atzeman zien Ertzaintzak. Droga eta atxilotuak epaitegiaren esku utzi zituzten. Bestetik, Deba Garaian eta beste eskualde batzuetan kontrabandoko tabakoa banatzen zuen sare bat desegin du Ertzaintzak aste honetan.

Uharkapeko hitzarmena

Joan den asteko ostegunean sinatu zen formalki Uharkapeko hitzarmena. Udaletxean izan zen sinadura, eta han izan ziren udal ordezkariak, Irgala eraikitzailea, Azatza auzoko kooperatiba eta Jose Luis Iñarra kaleko bizilagun talde bat. Auzian parte hartu duten aldeek oso positibotzat jo dute akordioa.

Mankomunitatea eta Akitania

Deba Garaiko Mankomunitateak loturak estutu ditu Akitaniako AFPA

**Torturaren aurka**

Torturaren aurkako manifestazioan, igande arratsaldean, 700 bat lagun bildu ziren, antolatzaileen esanetan. Arrasateko Torturaren Aurkako Herri Ekimenak deitutako manifestazioa, Joseba Arregi atxilotua Madrileko komisaldegian batean hil zeneko 13. urtemugan egin zen. Kontzentrazio batean, antolatzaileek Arregiren kasua oroitu zuten, baina Juan Calvo, Gurutze Iantzi eta Xabier Galparsorearen heriotzak ere ekarri zituzten gogora, baita Kepa Urrea preso mondrauetarrak jasandako torturak ere. Hildakoen omenez Portaloian lore batzuk utzi ostean amaitu zen manifestazioa.

erakundearekin, hezitzaileak formatzeko proiektu bat gauzatzeko. Mankomunitateak martxan jarri duen Garapen Ekonomikorako Agentziaren ordezkariak Baionan (Ipar Euskal Herria Akitaniaren barruan gertatzen da) izan ziren joan den astean, AFPArekin hitzarmena sinatzeko.

Pogorelichen kontzertua

Ivo Pogorelich kroaziarak Mussorgskyren pieza bat estreinatu zuen Arrasaten eskaini zuen piano kontzertuan. Amaia antzokia ez zen bete, baina pianojolearen aktuazioa bikaina izan ei zen, eta azkenean, txaloen poderioz,

hiru aldiz atera behar izan zuen jendea agurtzera.

...Eta haratuzteak

Larunbateko play-back jaialdia barre algarra etengabea izan zen. Amaia antzokia musika eta umorez jantzi zen, baina kalean ez zen ia inor moztorrotu. Asteartean, arratsaldean ume mordo bat ibili zen kalerik kale eta pailazoekin, eta iluntzean nagusiek hartu zieten txanda.

JAIOTZAK

- Ander Mangana Aranbarri. Otsailaren 8an.
- Jonatan Aguiar Cantero. 12an.
- Nahia Zeziaga Bengoa. 12an.
- Xabier Barinagarrementeria Acha. 11an.

HILDAKOAK

- Prudencio Ormaetxea Trojaola. Otsailaren 10ean. 85 urte.
- Jose Leon Alzelay Korkostegi. 10ean. 57 urte.
- Visitacion Delgado Ferreira. 13an. 84 urte.
- Petra Axpe Larrañaga. 13an. 79 urte.
- Margarita Enekotegi Goikolea. 12an. 86 urte.
- Candido Askasibar Alberdi. 14an. 83 urte.
- Josefa Echebarrieta Zaballa. 14an. 92 urte.
- Benigno Telleria Berasategi. 15ean. 79 urte.
- Lucia Izeta Uranga. 15ean. 71 urte.

**CIM****HIZKUNTZAK-IDIOMAS**

**LARUNBATETAKO
INGELESEZKO IKASTARO
INTENTSIBOAK HASI BERRI
DIRA!!**

- MAILAK:**
- Hasierakoa
 - Oinarrizkoa
 - Erdi-mailakoa

**Oraindik garaiz zabilta!!
Eman izena lehenbait lehen**

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54

FAGOR**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



Mugarritteko bidegorria eta urbanizazioa guztiz amaitu gabe dago oraindik.

Urbanizazio lanen karga eta zorrak eztabaidagai

Udalari zor zaizkion urbanizazio lanen kargak, bide exekutiboz kobraraztea erabaki du Gobernu Batzordeak berriki. Akumulatutako nahiko zor handiak daude alor honetan, izan ere, enpresa askorentzat urbanizazio kosto hauek karga handia dira, eta zenbaitzuk zorretan utzi dituzte.

Zehazki, Mugarritte eta Musakolako azken urbanizazio lanetan afektatutako ugazaben artean kezka sortu dute udalak ezarritako karga garestiek. Urbanizazio kosto hauek zera dira: terreno edo zonalde bat garatzea erabakitzen denean, urbanizazio lan batzuk egiten dira (argiteria, espaloiak eta bideak), eta horiek bi eratan finantza daitezke: terrenean jabeen artean ados jarrita, edo bestela, udalaren ardurapean, baina ondoren, ugazaben artean "fakturak" banatuta. Azken sistema da Musakola eta Mugarritteko erabilitakoa, eta antza denez, zenbait jabe ez daude ados ezarritako "faktura" horiekin.

Mugarritteko kasuan, bertako jabeen artean (gehienak auto-saltzaileen negoziak

dira) 76 milioi PTAko kopurua ordaindu behar dute. Gastu horiek esijitzea, bertako negozioen une ekonomiko txarra kontuan hartzeke erabaki du udalak, afektatutako batek, Mugarri etxeko Rafa Etxabek, adierazi digunez. Bere iritziz, egindako lanak gehiegizkoak izan dira.

Ordainketarako ere erraztasun handiegirik ez du ematen udalak, eta epeka pagatu daitezkeen arren, urteko % 10eko interesarekin da, banku baten baldintzetan ia. "Pentsatu behar dugu udala guri laguntzeko dagoela, baina alderantziz da. Inpotentzia da sentitzen duguna", adierazi digu Rafa Etxabek.

Hirigintza sailetik adierazi digutenez, Mugarritte egindako lanak ez dira inolaz ere luxuzkoak, eta ahaleginak egin dira karga ahalik eta txikienak sortzeko. Ugazaba batzuentzat, ordea, zenbait detaile tokiz kanpokoak dira erabat; hala nola, txirindularientzako egindako 500 metroko Mugarritteko bidegorria, errepide zatien artean isolatuta geratu den obra.

Gazte taldeentzako laguntzak

Gazte Zerbitzuak gazte taldeentzako aurtengo dirulaguntzen eskaintza egin du publiko. Laguntza nahi duten taldeek, iazko ekintzen memoria eta diru-kontuen balantzea aurkeztu beharko dute, 94rako egitasmo eta aurrekontu batzuekin batera. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 31 arte dago irekita. Bestetik, udaleko gazte sailak auzoetan gazteentzako lokalak irekitzeko aurreproiektua onartu du.

Oxiñalde eta Solozar baserriak

Musakolako Oxiñalde baserrian, abenduan, lur-jauzi larri bat izan zuten ur-handien ondorioz, eta baserriko bizilagunek inguruko lurren egoera azter zezaten eskatu zieten Foru Aldundiari eta udalari. Terrenoak ez omen die segurtasun handirik ematen, eta Oxiñaldekoak beldur dira beste ur-handi batzuetan ere kalteak izango ote dituzten. Baina Udalaren iritziz ez dago arriskurik eta beraz, ez dute gainerako neurririk hartuko. Bestetik, San Andresko Solozar baserria oso egoera kaskarrean dagoela eta, konponketa lanak egitea agindu dio udalak jabeari, Altuna y Uria enpresari, bertan jendea bizi da eta alokairuan.

**LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62





Intsumisioaren aldeko Arrasateko manifestaldi bateko irudia.

Intsumisioen aldeko plataforma eratzeko deia

Arrasateko bi intsumisoren aurkako epaiketak hurbiltzen ari direla eta, Arrasateko Antimilitaristen Taldeak plataforma bat eratzeko proposatu du. Datorren astearterako (hilak 22, Monterronen, 19.30), intsumisioarekin bat egiteko gizarte-plataforma hori eratzeko deia egin dute antimilitaristek. Epai-tuei babesa eskaintzearekin eta soldadutza salatzearekin bat datozen guztiak (pertsanak, elkarteak eta herriko estamentu desberdinak) daude deituta plataforma horretan parte hartzera. Talde zabal horren helburua, kartzelaratuak intsumisioekin eta soldadutza uko egiten diotenekin elkartzuna adieraztea izango da.

Baina arazoa ez da bi arrasatear horiena bakarrik (Josu Galdos eta Mikel Beitiarena), Gipuzkoa osoko 54 intsumiso pasatuko baitira epaitegietatik apirilaren 27a bitartean. Epaiketa sorta luze honetan, Iñaki Galdos oñatiarra izan da lehena (Arrasateko Saiolainen egiten du lan gazte honek), aste honetan

bertan. Hori dela eta, Oñatiko ikastetxeetan greba egin zuten asteartean. Asteazkenean, Joxe Lazkano bergararren txanda izan zen. Eta horrela iritsiko zaie epaiketa gainerakoei, Arrasateko bi horiez gain, Aretxabaletako Felix Iñurrategi mendizale ezagunari eta Julen Larrinagari ere bai, besteak beste.

Intsumiso hauen aurka bi urte baino gehiagoko zigorrak eskatzen dituzte fiskalek, kasu gehienetan. Epaiak tinko bihurtzen direnean, kartzelaratu egiten dituzte, baina berehala 3. gradua eskaintzen diete, hau da, espetxean gaua pasatzera behartuta daude, baina eguna libre. Hala ere, intsumisioen mugimenduak ustezko kontzesio horri uko egitea erabaki du, gaez ez bueltatuz. Ondorioz, berriro atxilotu dituzte, eta orain irteera baimenik gabe preso dago makina bat. Horien artean Ander Goñi nafarra, abendutik Basauriko kartzelan dagoena, Arrasateko Eskola Politeknikoan ikasi eta LKSn lan egiten duen Etxarri-Aranazko gaztea.

Zagurdiko basoa

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabilgarritasun publikoko deklaratu ditu Gipuzkoako hainbat baso; horien artean, Arrasateko baso bat dago: Zagurdikoa. Baso hau pinadi bat da gaur egun; azken urteetan zehar Papelera Española enpresak esplotatu izan du papera egiteko, baina enpresa hori itxekotan dago, eta saldu egin zizkion terrenoak Diputazioari. Orain, pixkanaka espezie autoktonoak sartzeko aukera egongo da, basoaren jatorrizko egoera berreskuratzeko. Horrez gain, orain erabilgarritasun publikoa duenez, ezin da saldu, ezin da eraikuntza iraunkorrik egin, eta egurra esplotatzekotan, kriterio publikoekin egin behar da.

Udala eta Elkarkidetza

Udalak ez ditu aurrerantzean funtzionarioen Elkarkidetza pentsioak ordainduko. Elkarkidetza udaleko funtzionarioek duten pentsio-sistema berezia da. Iaz arte, Udalak finantzatzen zuen pentsio-fondo horren partetik handiena, % 60a, baina joan den maiatzean kuotak murriztea erabaki zen. Lehen langile bakoitzeko hilean 7.000 PTA ordaintzen zizkion udalak Elkarkidetza, baina kopuru hori 1.000 PTAra jaitzi zen. Orain, aportazio hori ere moztea erabaki du Udalak, eta funtzionarioek ordaindu beharko dute euren kasa.

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



Rosa Mondragon, berdintasunerako agentea, IMlko lokal zaharretan duen bulegoan.

Emakumearentzako zerbitzua martxan jarri du udalak

Arrasateko emakume taldeen eskaera zahar bat, emakumeentzako udal-zerbitzu propioa izatearena, gauzatu egin da azkenean. Ez dago emakumearen sail berezirik, baina batzorde bat sortu da, Isabel Zuazubiskar zinegotzia buru dela, eta emakumearen berdintasunerako agente bat ere kontratatu du udalak.

Lau emakume taldek (Egizan, Ekin, Emakumeen Asanblada eta Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak) formalki eskatu zuten zerbitzua martxan jartzea iaz. Lehen urrats gisa, berdintasun agente berria, Rosa Mondragon, hasi da lanean. Bere lana, udaletxeko batzorde eta zerbitzu desberdi-

netan emakumearekiko inplikazio handiagoa sortzea da. Arazo partikularrak dituzten emakumeen kasuak ez ditu berdintasun agenteak bideratuko eta, orain arte bezala, Gizarte-sailak eta gizarte laguntzaileek atendituko dituzte. Rosa Mondragonek emakume taldeen eta udalaren arteko harremanak ere koordinatzen ditu jadanik.

Bestetik, emakumearen gaiak tratatuko dituen batzordea eratu da: Zuazubiskar batzordeburua, berdintasun agentea eta emakume talde eta alderdietako ordezkariekin. Bestetik, aurrera doa emakume taldeen beste egitasmo bat: babes-etxea sortzeko proiektua.

Eroskiren hazkundera

- Eroskik 5.000 milioi
- PTA inguruko irabaziak
- lortu zituen iaz, Antonio
- Cancelo Eroskiko zuzendari
- nagusiak adierazi duenez.
- Eroskik 240.000 milioi PTA
- izan zituen salmentetan iaz,
- eta aurten 290.000 milioi
- egitea espero dute. 93an
- zehar sei hipermerkatu ireki
- dituzte Estatu espinoan
- zehar. 28.000 milioi PTA
- inbertitu da hipermerkatuo-
- tan, eta 1.100 lanpostu sortu
- dira. Honebestez, Eroskik
- Consum izeneko 188
- supermerkatu ditu irekita,
- eskualde mailako 17 Maxi,
- eta 14 hipermerkatu, Eroski
- markarekin. Izena Euskal
- Herriatik kanpo hedatzea ere
- lortu du Eroskik.

Udal tasak

Ibilgailuen udal-tasa ordaintzeko epea zabalik dago apirilaren 30a arte. Ibilgailuen errolda (ordaindu behar dutenena) udal-etxean dago ikusgai. Aldi berean, ur eta zaborren tasa ordaintzeko epea ere irekita dago apirilaren 15a arte. Zerga hauek % 20ko gainkargua daukate epez kanpo ordaindu ezker.

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66


ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

MENDIA

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59


Ez zen pertsonaia ospetsurik falta izan larunbateko jaialdian. Guztiek eskeini zuten bere "numerotxo"





Mozorrotuta irten zuten guztiek merezi zuten saria, baina guztientzako ez zegoenez, epaimahaiak ondorengo hauei ematea erabaki zuen:

1. saria: **Felico Ayalari**, zorroztaile mozorrotuta irten zuen, 100 urteko bizikleta batekin.
2. saria: **Benito Rodriguez** eta **Mari Cruz Etxebesteri**. Hauen mozorroak "Joxepa eta Pantxiku" zuen izena.
3. saria, talde onenarena: "**Autos de Choque**" taldeari.



Kaso egiteko ezintasunagatik

TRASPASOAN

☎ 79 80 90

JOSTEKO, Errekabarren, 20 ARETXABALETA



IZEN PROPIOAK

● **Eguzkiñe Iturbe**, 33 urte, eibartarra, Arrasateko Maxi Eroskiko arduradun berria da. Eguzkiñek administraritza dauka eginda. Aurrez Eibarko Maxi Eroskiko arduraduna izan zen.

● **Amaia Uranga**, 26 urte, zumaiarra, AEDn lanean hasi da bekadun bezela. Haurren ekintzetan lan egingo du. Amaia Almenen TASOC, animatzaile sozio-kultural modulua ikasten ari da.

● **Pello Sologaitoa**, 20 urte, AEDn lanean hasi da bekadun bezela. Debagune saileko ekintzak antolatzea izango da bere lana. Pello eskoitzarra da eta Almenen TASOC ikasten ari da.



**Hizkuntza minorizatu-
zuen inguruan lan egiten duen talde galestar baten bisita eduki genuen karnabal martitzenean. Udalaren hizkuntz-politikaz, ARKO eta AED ezagutzera etorri ziren.**



Denda ixteagatik guztiaren
LIKIDAZIOA
 GUZTIA PREZIO ERDIAN
 LANTEGIAN BAINO MERKEAGO




**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



CARFRA

Vanesa

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Pil-pilean dago jokoia

Bi partidu falta dira Zaldibar txapelketako lehen fasea amaitzeko, eta gauzak pil-pilean daude. Esperantzarik ez dutenen artean, beste talde batek kale egin zuen asteburuan, eta horrela geratu da Ooole txapelketatik kanpo. Aukerarik ez duten beste talde batzuk, ordea, gogor segitzen dute borrokan, aukerarik ez dutela jakin arren. Hor dugu, adibidez, B taldeko atzekaldean dauden Fancy

Bois eta Monterrey taldeen arteko lehia bikaina: zortzina parra! Edo, Atxanta Ke Te Merece eta Corinto Tabernaren garaipenak. Lehenen kasuan, Excavaciones Leterekin (3-1) eta besteek Potrosorriekin (4-1). Azkenean, bi puntu gehitu ditu Elisabeth-ek, orain arte puntu bakarra ere eskuratu ez zuen. Baina hori bai, kanporatutako Koak Lait taldearen aurka tokatzen zitzaiola izan da.

PUB HAIZEA

arrasate

LORATEGI

Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
TRIKITI	17	16	0	1	77	17	32
SUM. UGARTE	17	16	0	1	112	27	32
ARLUTZ	17	12	3	2	80	31	27
ZOTZ	17	11	3	3	58	48	25
JEY JULIWER	17	10	4	3	64	31	24
UGLYS TXINATO	17	11	2	4	70	47	24
SOKOAKOAK	17	11	1	5	75	56	23
ANBOTOSTE KT	17	9	3	5	48	31	21
BIZKORRAK AVE.T.	17	8	3	6	60	45	19
BERANGO SUK.	17	8	1	8	59	49	17
KOXKAS	17	7	2	8	50	52	16
EUSKAL INDARRA	17	6	1	10	73	79	13
IKATZ	17	5	2	10	57	87	12
BAYERN LENITZ	17	6	0	11	38	69	12
AUF DEM KOFFER	17	4	1	12	36	67	9
RESAKAS	17	3	3	11	40	58	9
WHISKERIA LINDE	17	4	1	12	41	109	9
FRAGUEL GOL	17	2	3	12	40	67	7
ALLA KUIDAUS	17	3	0	14	26	88	6
ETXE MOBILIARIO	17	1	1	15	37	83	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	17	16	1	0	112	40	33
ZULOAK	17	12	3	2	61	32	27
DANOK LAGUN	17	9	8	0	44	22	26
BUKANAK	17	11	2	4	74	38	24
LEINTZ GARAGAR.	17	11	2	4	77	32	24
IRATI STS	17	9	5	3	69	35	23
ARR. KIROLAK	17	11	0	6	64	43	22
ALPEN KRAUSSER	17	10	2	5	75	88	22
TRONKOTEAK	17	9	2	6	51	55	20
BETRAYER	17	9	2	6	78	49	20
NOTXINGAN FLO.	17	5	4	8	49	62	14
OJO AVISORE	17	5	3	9	67	72	13
EXCAV. LETE	17	4	5	8	41	50	13
GANBELAS	17	6	0	11	47	56	12
OOOLE	17	5	1	11	51	81	11
DIEGO ANTONIO	17	5	1	11	53	63	11
FANCY BOIS	17	3	3	11	46	73	9
KOPYPREST	17	3	1	13	47	84	7
MONTERREY Z.B.	17	2	2	13	46	105	6
ATXANTA KE TE...	17	1	1	15	27	99	3

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
FOSFOROS	17	13	1	3	84	31	27
LOS HEREDIA	17	13	1	3	62	26	27
MIKELOS	17	13	1	3	76	33	27
NABARROS	17	12	3	2	66	31	27
ARR. KRISTALDEGIA	17	10	3	4	59	35	23
KAKAJAURI	17	9	5	3	61	36	23
MOTZ	17	9	1	7	77	48	19
PEPELUS	17	8	2	7	63	46	18
LOS DALTON	17	7	3	7	54	56	17
TXOKO TABERNA	17	8	1	8	39	51	17
FOTO IMAGEN	17	7	3	7	48	53	17
ADELAIDA HAIZEA	17	6	3	8	41	50	15
HIREI	17	6	2	9	54	59	14
KIRTEN TROPEL	17	5	4	8	37	51	14
MZK GANBELAS	17	5	2	10	46	58	12
POTROSORRI	17	6	0	11	36	47	12
LEYA	17	5	1	11	50	86	11
SIBILIUS ROVER	17	4	0	13	23	57	8
BORROCKN ROLL	17	4	0	13	41	86	8
CORINTO TABERNA	17	2	0	15	36	113	4

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ZULUS	17	14	3	0	130	42	31
POTROAK LORATEGI	17	13	2	2	81	37	28
AC SURCOS	17	13	2	2	102	33	28
TOVARIXTX	17	13	2	2	64	39	28
TUTTIFRUTI	17	11	5	1	86	49	27
REVOLUTION ROCK	17	12	1	4	81	38	25
CARBUIROS	17	10	4	3	66	30	24
FRANCISCANERR	17	10	2	5	81	55	22
LASO ARREGI	17	8	2	7	58	59	18
NUEVO TABERNA	17	7	3	7	51	54	17
GURE LEKU	17	7	2	8	57	59	16
LOS DIMY	17	4	7	6	55	47	15
SOLANO 7 MARES	17	6	3	8	69	82	15
KRISKIBALDA	17	5	3	9	59	73	13
MACCABI DE LEV.	17	4	2	11	41	75	10
BODISCA	17	3	2	12	30	83	8
ILUNA TABERNA	17	3	1	13	33	101	7
EZKINAKO HONTZAK	17	2	0	15	32	122	4
ELISABETH	17	1	0	16	32	96	2
KOAK LAIT	17	1	0	16	22	56	2

ADI!!!



Lehen 20 bezeroen artean, auto bikain hau zozkatuko dugu

GARAJEAKSALGAI
Amaia antzokiaren ondoan, Ferixalekuko parkean

Ez aukera hau galdu!!!
Prezio harrigarriak

Informazioa eta salmenta: Tfnua: 79 19 96 ARRASATE



Lau talde berdindurik, C taldeak du emozio gehien sailkapeneko buruan. Asteburuan, liderretako bik elkarren aurka jokatu dute (Nabarros-Mikelos); Los Herediak errazagoa du Kirten Tropelekin eta zailtxoagoa Fosforosek, Kakajaurirekin. Azken jardunaldian, taulako erdi parteko taldeen aurkako partidua di-tuzte lau lider hauek.

BELARRIRA

◆ **Argi berriak Zaldibarrerako.** Badirudi udalak jaramon egin diola azkenean Zaldibarko futbito txapelketa erreibindikazio zaha- rrenetako bati: argiteria berriztuko dute Zaldibarren. Udalak 1.067.000 PTA gastatuko ditu argi berriak jartzen, eta espero dezagun gaur egungo argi horixkak baino zerbait indartsuagoa jartzea.

◆ **Antolatzaileak kanpora?** Antolatzaileek akatsen bat eduki zuten asteburuan, eta larunbatean ez ziren garaiz iritsi Iturri- pera. Taldeentzako dauden arau berberak aplikatuz gero, kanporatu egin beharko lituzkete, baina oraingoan, abisuan utz dezagun...

◆ **Iturripeko txapelketa.** Bigarren fasea jokatzear-ekin batera, sailkatzerik izan ez duten taldeentzat Iturripen gazte talde batek antolatzen duen txapelketak aruten ere izango du bere edizioa. Bertako emaitzen berri ematea espero dugu guk ere.

EMAITZAK

A TALDEA

Suministros Ugarte 2- Uglys Txinato 4
Jey Juliwer 0 - Trikiti 2
Fraguel Gol 6 - Sokoakoak 8
Etxe Mobiliario 3 - Koxkas 5
Berango Sukaldeak 7 - Ikatz 3
Auf dem Koffer 3 - Euskal Indarra 5
Anbotoste KT 2 - Bizkorak Avenida Taberna 3
Arlutz 6 - Whiskeria Linde 2

C TALDEA

MZK Ganbelas 3 - Pepelus 5
Mikelos 6 - Sibilius Rover 1
Los Dalton 2 - Nabarros 2
Kirten Tropel 3 - Motz 9
Hirei 2 - Los Heredia 6
Fosforos 6 - Leya 4
Txoko Taberna 6 - Kakajauri 2
Arrasate Kristaldegia 1 - Foto Imagen 2
Adelaida Haizea 3 - Borrockn Roll 1
Corinto Taberna 4 - Potrosorri 2

B TALDEA

Notxingan Florest 1 - Ooole 0
Leintz Garagardotegia 1 - Zuloak 3
Irati STS 9 - Ojo Avisore 2
Fancy Bois 8 - Moterrey Zubi Bel 8
Diego Antonio 8 - Kopyprest 5
Bukanak 3 - Ganbelas 1
Atxanta ke te merece 3 - Excavaciones Lete 1
Argi Ibili 1 - Danok Lagun 1
Alpen Krausser 3 - Betrayer 12
Arrasate Kiroalak 6 - Tronkoteak 1

D TALDEA

Revolution Rock 3 - Tovarixt 4
Maccabi de Levantar 3 - Zulus 7
Laso Arregi 4 - Solano 7 Mares 4
Kriskibalda 0 - Potroak Lorategi 7
Francisaner 4 - Los Dimy 4
Bodisca 0 - Gure Leku 7
Iluna Taberna 2 - Ezkiñako Hontzak 4
AC Surcos 3 - Carbuos 2
Nuevo Taberna 7 - Tuttifrutti 7

SEAT | **Udalaitz, S. A.**

Audi | **ADI!** | **VW**

2. Eskuko autoak

PANDA	SS-2550-P
AUDI 200	SS-1423-AH
AUDI 100	NA-3415-Z
IBIZA	SS-1023-V

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

Jovi

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako fel- pudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 19

Zaldibar

- 08.50 Suministros Ugarte - Zotz
- 10.00 Bukanak - Excavaciones Lete
- 11.00 Notxingan Florest - Zuloak
- 12.00 Txoko Taberna - Foto Imagen
- 13.00 Tovarixtx - Tuttifruiti
- 14.00 Iluna Taberna - Carbueros
- 15.00 Lenitz Garagardotegia - Ojo Avisore
- 16.00 Kriskibalda - Los Dimy
- 17.00 MZK Ganbelas - Sibilius Rover
- 18.00 Revolution Rock - Zulus
- 19.00 Jey Juliwer - Sokoakoak

Iturripe A

- 11.00 Diego Antonio - Ganbelas
- 12.00 Uglys Txinato - Whiskeria Linde
- 13.00 Kirten Tropel - Los Heredia
- 15.00 Auf dem Koffer - Bizkorak Avenida

Taberna

- 16.00 Mikelos - Nabarros
- 17.00 Bodisca - Ezkiñako Hontzak
- 18.00 Fosforos - Kakajauri

Iturripe B

- 11.00 Fraguél Gol - Koxkas
- 12.00 Irati STS - Monterrey Zubi Bel
- 13.00 Berango Sukaldeak - Euskal Indarra
- 15.00 Fancy Bois - Kopyprest
- 16.00 Los Dalton - Motz
- 17.00 Laso Arregi - Potroak Lorategi
- 18.00 Atxanta ke te merece - Danok Lagun

Igandea 20

Zaldibar

- 08.50 Etxe Mobiliario - Ikatz
- 10.00 Anbotoste KT - Bayern Lenitz
- 11.00 Arrasate Kristaldegia - Borrockn Roll
- 12.00 Argi Ibili - Betraye
- 13.00 Hirei - Leya

Iturripe A

- 10.00 Pepelus - Potrosorri
- 11.00 Elisabeth - Gure Leku
- 12.00 Maccabi de Levantar - Solano 7 Mares

Iturripe B

- 10.00 AC Surcos - Nuevo Taberna
- 11.00 Adelaida Haizea - Corinto Taberna
- 12.00 Alpen Krausser - Arrasate Kirolak



Adi egon zigorrekin eta berdinketekin

Lehen fasea amaitzeko bi partidu falta direla, emozioz gainezka daude sailkapenak, bakoitzean ze zortzi talde sailkatzen diren ikusteko, eta zer ordenetan (lehen postuei dagokienez), oso garrantzitsua izango baita hori bigarren faseko zozketa eta taldeak antolatzeko.

Guk argitaratzen ditugun sailkapenei dagokienez, adi egon, zigortutako taldeen emaitzak zigorrik ez balute bezala agertzen baitira. Horregatik, gaurkoan zigortuen zerrenda ekarriko dugu gogora. Tauletan bi puntu kendu behar zaizkie zigorregatik honako ekipo hauei: A taldean, Auf dem Kofferri; B taldean, Argi Ibili, Fancy Bois eta Kopypresti; C

taldean, Corinto Tabernari eta Borrockn Rolli, eta D taldean, Iluna Tabernari. Horrez gain, txapelketa kanpo daude Alla Kuidaus, Resakas, Koak Lait eta Ooole taldeak (azken hori, aste honetan bertan kanporatua).

Kontuan hartu beharreko beste puntu bat berdinketena da. Oraingoz emozio gehien duena C taldea da, lidergoari dagokionez behintzat. Lau talde daude parra 27 punturekin, eta azkenean gol-averageak lupaz neurtu beharko dira. Oraingoz, kalkulatu gabe daude average horiek, eta horregatik baliteke sailkapeneko orden zuzena ez izatea guk argitaratutakoa. Azkenean argituko dugu dena.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

● Ion Aranbarri Balleta bizitzaren ardatz

29 urteko gazte hau, Arrasate Musikal akademiako balleteko irakaslea da. Herrian maila oneko dantzariak daudela dio, eta talentu horiek herritik kanpo, akademia hobeetara ateratzea gustatuko litzaioke. Momentu hauetan, Montpellier-en dago, ballet obra bat interpretatzen.

— Nola hasi zinen balleta ikasten?

— Tira, ni Arrasate Musikalen musika ikasketak egiten hasi nintzen eta 16 urterekin balleteko klaseetara apuntatu nintzen. Baina, musikak eta dantzak baino, ikastolako ikasketek zuten lehentasuna eta gainera, balletari dagokionez, astean ordu bat baino ez genuen ematen. Egia esan, teknikari begira, ez zidaten ezertarako balio izan hemen hartutako klase orduak, baina ordu haiei esker, dantzarako grina sortu zitzaidan. Gero Zaragozara joan nintzen balleta ikastera, “Zaragozako Udal Ballet Eskolara, eta han hezi nintzen Cristina Miñana irakaslearekin. Zaragozan nengoela, bertako konpainian

ere egiten nuen dantzan. Garai hartan, Cristina Miñanak berak zuzentzen zuen.

— Duela 13 urte ez zen oso normala mutil bat balletean ibiltzea. Zerk bultzatu zintuen?

— Bai, egia esan behar da; ez zen oso normala eta oraindik ere ez da oso normala. Nik oso ballet gutxi ikusten nuen, eta ikusten nuenean, telebistan: Nureyev dantzari famatua ikusia nuen noiz-bait... eta asko gehiago ez. Arrasatera etortzen ziren ballet konpainiak ikustera ere joaten nintzen eta txundituta geratzen nintzen; gainera edozein momentutan dantzan hasten den mutil horietako bat nintzenez, balleteko klaseetara apuntatu nintzen.

— Badago talenturik zure klasean?

— Aukerak dituzten neskatilak daude, baina jakina, oso gazteak dira oraindik, oso txikitxoak. Dena den, gerta daiteke, maila bat dutenean eta balleta ikastera kanpora joateko orduan, euren gurasoek beste gauza batzuei lehentasuna ematea; karrera bat egiteari, adibidez. Horri buruz



hitzegitea gustatuko litzaidake: Uste dut herri batean bizi izateak ez duela inor atzera bota behar. Herrira gauza on asko heltzen dira, Ivo Pogorelich adibidez. Beraz, zergatik ez dira herritik gauza onak atera behar?... Nire asmoa horren kontra borroka egitea da.

— Irakaslea izateaz gain, baduzu zerbait gehiago eskuartean?

— Momentu hauetan, J.B. Lully-ren “Roland” operan ari naiz lanean. Ez naiz inongo konpainiatako partaide, baina edozein produkzio suertatzen denean, aurkeztu egiten naiz, eta kasu honetan, hartu egin naute. Obra hau, Montpellier Operako eta Campos Eliseos Antzerkiaren produkzio bat da. Irailetik aben-

dura Parisen egon ginen, Campos Eliseos antzokian eta gero, funtzio berarekin, Lisboaara joan ginen eta orain Montpellier-eko Operara goaz.

— Ba dago mutilik zure klaseetan?

— Bai, mutil bakarra dago. Oso ona da, aukerak ditu. Egia esan, oso gustora dabil.

— Zer esango zenioke mutil bati balletean has dadin?

— Oso txikia balitz, ballet-dantzari handien zenbait bideo erakutsiko nizkioke, “afeminatu” edo indar-gutxiko gizonaren ideia hori burutik kentzeko. Horrela, dantzariak ematen dituzten jauzi handiak ikusiko litzuke, eta ballet-dantzarria izatera heltzea oso zaila dela ikusiko luke. Dantzari bat beste inor baino “gizonago” izan daitekeela ikusiko luke. Edozein kirolen antzerakoa da balleta, baina zailagoa, interpretazioa eskatzen duelako.

● **“Balleteko dantzari bat, beste edozein baino ‘gizonago’ izan daiteke”**



Biblia eskuetan dutela errezatzen dute lekukoek.

Jehova Jainkoaren mezulariak

Maria Agirre

Jehová deitzen diote Jainkoari. Kristauak dira eta Biblia ulertzeko euren era dute. Hori bai, bertan esaten dena zorrotz betetzen dute. Horregatik ez dute boturik ematen, kontzientzia eragozleak dira, odola sagaratua da eurentzat eta homosexualitatea bizioa dela diote.

Gehienok ezer gutxi daki-gu Jehovaharen lekukoei buruz. Euren gainean zer ezagutzen duen galdetu eta gehienek etxez etxe ibiltzen direla bakarrik dakite. Baina Jehovaharen lekuko kristauak sinismen batzuk dituzte eta horiek hedatu egin behar direla uste dutelako ibiltzen dira aterik ate. Hona hemen zertan sinisten duten, zein arau dituzten eta Arrasate inguruan zenbat fededun dituen erlijio honek.

ESTATU BATUETAN SORTUA

Jehovaren lekukoen mugimendu moderno deritzoguna, EEBBtan sortu zen XIX. mende bukaeran. Garai hartan hainbat pertsonak Biblia aztertu eta iruditu zitzaaien eliza desberdinek ematen zuten irakaskuntza ez zela zuzena. Lekukoen ustez, tormentuzko toki gisa ulertzen den infernuri ez dago eta ez dute arimen hilezkortasunean si-

Testigoen arau eta

- Pekatuak: ezkontuta daudenek fideltasuna haustea, ezkontz erlaziotik kanpo haragizko harremanak edukitzea, lapurreta, hilketa eta homosexualitatea.

- Lekukoa izateko Biblian ageri diren arauak zorrotz bete behar dira eta mezua predikatu beharra dago.

- Odola sagaratua da. Horregatik ez dute odol transfusiorik onartzen.

- Neutralak dira arazo politiko eta militarretan. Ez dute kargu politikorik onartzen, ezta gobernurik ere eta ez dute boturik ematen, hori euren ustez Jainkoa saltzea delako.

- Kontzientzia eragozleak dira. Ordezko zerbitzu soziala ez dute onartzen.

nisten, bai aldiz, berpizkundean. Era berean, satanasek zuzentzen dituen gizaki gaiztoak eta deabruak badaudela diote. Gainera, Amabirjina Jesusen ama baino ez dela uste dute. Horregatik, Jehova Jainkoari eta bere semeari, Jesusi, Jainkoaren eta gizakien arteko bitartekaria denari egiten diote adorazioa, eta ez amabirjinari.

EEBBtan finkatu zelako, egoitza nagusia Brooklyn-en, New Yorken dago eta mundu guztian 100 ordezkari inguru ditu erlijio honek. Espainiar estatukoa adibidez Madrilan kokatua dago eta honek bere barnean hainbat kongregazio ditu. Hauetariko bat Arrasatekoa da, Erguin auzoan kokatua dagoena. Bertan Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aramaioko 80 lekuko biltzen dira Jehova Jainkoari errezatzeko.

MUNDUAREN AZKEN EGUNAK

Lekukoak ideia batekin bizi dira itsututa: 1914. urteaz geroztik bere azken egunak bizi ditu munduak. Komentzimendu osoz esaten dute, edozein egunetan Armagedón izeneko bataila gertatuko dela. Batailan Jesusek eta aingeruek parte hartuko dute eta ostean, munduan Jainkoarekiko justuak izan direnak bakarrik geratuko direla diote. Gainera bataila horrek hilen berpizkundera ere ekarriko ei du, hau da, orain hilda daudenak bizi izango dira berriz ere. Honek galdera bat eragiten du: hildakoak bueltatzen badira, kabituko ote da jende guztia munduan? Lekukoak ustez Jainkoak arazo guztiei eman diezaieke irtenbidea eta agian ugalketa gelditu egingo luke. Hortantxe ibiltzen dira lekukoak aterik ate, azken

egun hori laster datorrela eta egun horretarako prestatu beharra dagoela adierazten. Guzti hau, jakina, euren ustez Bibliak halaxe dioelako, gertatuko da.

BARNE FUNTZIONAMENDUA

Jehovaren Lekukoaren artean ez dago apazik, ezta aintzindari erlijiosorik ere. Baina badaude gaitasun berezidunak eta hauek aurrea eramaten dute. Era honetan super-intendenteak, kongregazioak bisitatzen dituzten pertsonak, zirkuitoko super-intendenteak, asambladak ematen dituztenak eta distritoko super-intendenteak bereizten dira. Guzti hauek euren eza-gutza espiritualaren arabera izendatzen dira.

Bestalde, ekintza guztiak eurek finantzatzen dituzte, lekukoek ez baitiote estatuari dirurik eskatzen, horrek menpekotasuna ekarriko lukeela eta. Bolondresen dirulaguntzekin eta fededunek ematen duten diruaz finantzatzen dituzte ekintzak. Erreinuaren aretoa deitzen dutenean, hau da, euren ekintzak egiteko eta biltzeko erabiltzen duten tokian, kaxa batzuk dituzte eta bakoitzak ahal duen neurrian eta nahi duenean, dirua botatzen du.

EZ DA EROSOA

Ez da erlijio eroso lekuoena. Derrigorrez jokae-ra-arau batzuk jarraitu behar dituzte eta bilera zein eskola ugaritan parte hartzea behartuta daude. Arrasaten, adibidez, astean lautan batzen dira. Besteak beste, Biblia aztertzen dute eta etxez etxe nola predikatu eta jendaurrean hitzaldiak nola eman ikasten dute. Gainera, mezulari lana egitera behartuta daude, gehienek aurpegi arraroa jartzen dietela kontutan izanda, baina horri aurre eginaz, euren izaera ireki eta alaia lagun dutela.

A

rrasaten kongregazio bat dago. Inguruko 80 lekuko batzen dira bertan.

en zenbait ezaugarri

Soldaduskara joan behar duten lekukoentzat ez dago legerik, epaileek "karpetazoa" ematen diote arazoari.

- Maitasuna da kristauak kontutan izan behar duen ezaugarri nagusia.
- Dibortzioa adulterio kasuetan onartzen dute, baina ezdozein arrazoiengatik.
- Abortoaren aurka daude baina antisorgailuen erabilera onartzen dute. Antisorgailu guztien, DIUarena izan ezik.
- Berezitasunik nabarmenena bataioa da. Horretarako ez dago adinik, zertan sinisten duen jakitera heltzen denean bataioa daiteke lekukoa.
- Zibilez ezkontzen dira eta hilei lur ematen diete kanposantuan.



Etxez etxe ibiltzera behartuak daude.

Rugby taldea igoera faserako sailkatu da

Arrasate Rugby Taldeak euskal 2. mailako ligan lehen fasea amaitu zuen joan den larunbatean, Garagartzan Durangoren aurka jokatuako partiduarakin. 8-18 galdu zuten arrasatearrek, baina hala ere, 2. faserako sailkatuta daude. Ia-ia sustoa eman zieten durangarrek, izan ere, 17 puntu baino gehiagotatik galdu izan balute, sailkapena kolokan egongo zatekeelako.

Igoera faserako lau ekipa sailkatu dira: Arrasate zegoen taldeko Unibertsitarios eta Arrasate, eta beste taldeko Kakarraldo eta Gernika. Sailkapena ziurra den arren, bitxia bada ere, oraindik ez dakite nola jokatu duten fase hori. Batetik, ez dago argi Arrasateren posizioa zein izan den ligan, 1. edo 2., Unibertsitariosen puntu-zenbaketan akatsen bat gertatu omen zelako. Datorren asterako detaile hori argituko dela espero dute. Hala ere, seguruen 2. posizioa da gure rugbylariei egokituko zaiena.

Bestetik, sailkatutako lau taldeen artean jokatu beharreko lehiaketaren sistema ez dago erabakita. Gurutzatutako kanporaketa edo liga izan liteke. Kanporaketa bada, Arrasate 2. geratuz gero, Plentziako Kakarraldoren aurka jokatu beharko lukete, eta etsai latza litzate-



Garagartzan jende asko egon zen azken partidua ikusten

ke hori. Ligan ere gogorra izango da aurrera egitea. Gainera, oraindik ez dakigu zenbatek igoko duten euskal 1. mailara, gorago dauden talde euskaldunen emaitzen arabera baitago hori (segun eta zenbat jaisten diren).

Arrasatek, beraz, ez du batera erraza iaz galdutako maila berreskuratzea. Aurtengo denboraldi hasieran, zerrenda-buru jarri zituzten taldeen zozketa egiteko, baina gero ikusi denez, faborito

izateak ez die mesede handirik egin. Itxura batean, erakutsi duen jokoa baino hobea egiteko gai da Arrasate, baina lesioak direla, edo beste arazo batzuk tartean, uste baino arazo gehiago izan dituzte rugbylariek ligan. Esperantza beheko mailetan dago, jokalariek gazteak kaptatzeko kanpainan baitaude rugby taldekoak. Izan ere, oraingo nagusien erreleboa ziurtatzea da taldearen helburuetako bat.

LABURRAK

Domina gehiago judoan

Gipuzkoako Judo txapeletaren bigarren asteburu pasaz lehenengoan, eta lehen asteburuan bezala, beste bi domina etorri ziren Arrasateruntz. Biak Gaizka Aranegik lortu zituen, bi mailatan, 19 urtetik beherakoetan (urrezko domina) eta seniorretan (brontzezkoa). Beste judoka gazte batek, Jon Atxak, ikasle mailan hartu zuen parte eta 5. geratu zen.

Saskian, bigarren fasea

Arrasate saskibaloitaldeak asteburu honetan hasten du 2. fasea, animo osoz, eta lidergoa eskuetan. Altsasua da lehen aurkaria, eta talde osoarekin egongo dira Txus Brizuelaren mutilak, Iker Zubiria ere erreuperatu egin delako. Garaipen bat lortzea oso garrantzitsua litzateke mondrauetarrentzat, ustez faborito direnei haginak erakusteko bereziki: Atletico San Sebastian, Loiola-Indautxu eta Askatuak-i. Musakolak betekada izatea espero du klubak, une on eta historikoa ari baita ezagutzen Arrasateko saskibaloia.

Igerilekuak itxita

Datorren aste osoan zehar Musakolako kiroldegiko igerilekuak itxita egongo dira (hilaren 21etik 27ra). Osasun sailak behartzen duen pisizinen garbiketa da itxieraren motiboa.

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

PENALTIAK

● **Mondrak 2-2** egin zuen Getxon, gorabeheraz jositako partiduan. **Penalti faltsu batean sartu zuen goletako bat Getxok, eta horren kontra protestatzeagatik arbitroak Madina espultsatu egin zuen. 0-1 irabazten hasi arren, 2-1 aurretatu zen Getxo, eta Mondrak azken minutuan lortu zuen berdinketa.**

● **Futbolaren inguruko porrek arrakasta handia dute herrian. ATBk eta Arrasate Kirolakek antolatutakoak gero eta jokalaria gehiago ditu, eta berdin Mondrak oinarriko taldeentzat antolatutakoak ere. Asteburuan 700.500 PTA zeuden sarietarako, botea barne, eta 15 asmatzaileren artean banatu zen.**

Eskubaloilari jugoslaviar bat fitxatu du Arrasatek

Arrasate Kirolak eskubaloi taldeak fitxaketa berria egin du, eta Jugoslavia ohiko jokalaria gazte bat hasi da jokatzen mondrauetarrekin. Aleksandar Acucic ('Sasa' goitizenez) 22 urteko eta 1.94 metroko mutikote bat da. Azken garai honetan Eibarren bizi izan da errefuxiatuta, Zarko Trajkovic jokalaria ohi sarajevotarraren etxean. Arrasaterekin froga bat egin ondoren, jokatzen hasi da.

Ligako azken fasea, eta dena ondo badoa, promozioa jokatzeke kontratatu dute Sasa, indargarri gisa. Bere fitxaketa ostiralean konfirmatu zen azkenik, eta asteburuan Karmeloren aurka debutatzeko aukera izan zuen. Ez edozein modutan, gainera: ederto jokatu zuen



Lider doa Arrasate Kirolak, Pasaiarekin parra. eta sei gol sartu zituen.

Jugoslaviarraren lehen partidu horretan Karmelo talde donostiarrari 22-27 irabazi zion Arrasatek, eta hor segitzen eskualdeko 2. mailako ligaren lidergoan, Pasaiarekin parra. Lehen itzu-

lian Iturripen irabazi zuen talde bakarraren aurka mendeku ederra hartu zuen Arrasate Kirolak eskubaloi taldeak. Joan den asterarte beste talde bat ere bazegoen parra, Bergara, baina kale egin zuten azkenengoan.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Getxo 2 - Mondra 2
Emakumezkoak: Mondra 8 - Lagun Onak 1
Jub. Ohorezko Liga: Aurrera 1 - Mondra 1
Kadeteak, 1. maila: Urola 4 - Arrasate 1
Kadeteak, 2. maila: Almen 5 - Arrasate 0
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Erandio. Atxabalpe, igan., 16.30.
Emakumezkoak: Gure Txokoa - Mondra. Bera, igan., 11.00.
2. regionala: Mondra - Aloña Mendi. Atxabalpe, lar., 16.15.
Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Zumaiako. Atxabalpe, igan., 12.15.
Jub., 2. maila: Intxurre - Arrasate. Tolosa, lar., 14.30.
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Eibar. Atxabalpe, igan., 10.30.
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Idiazabal. Atxabalpe, igan., 9.00.

Haurrak: Arrasate - Iintxa. Atxabalpe, lar., 12.15.

Saskibaloia

Sub-23: Santo Tomas 56 - Arrasate 63
Jub. mutilak: Arrasate A 73 - La Salle 91
Jub. neskek: At. San Sebastian 63 - Patterncam 68
Kad., mutilak: Loiola A 65 - Loramendi Kirolak 50
Arrasate B 54 - Iruruk B 61
Kad., neskek: Benetton 39 - Loiola 49
Hurrengoak:
2. maila: Arrasate - Alsasua. Musakola, lar., 18.30.
Sub-23: Arrasate - Ordizia. Musakola, igan., 11.30.
Jub. mutilak: Ordizia - Arrasate A. Ordizia, lar., 16.00.
Iruruk B - Arrasate B. Oñati, Itr., 12.00.
Jub. neskek: Sasoeta - Patterncam. Lasarte, lar., 10.00.
Patterncam - Loiola. Musakola, igan, 12.00.

Kad., mutilak: Loramendi Kirolak - Don Bosco. Musakola, lar., 12.00.
Arrasate B - Almen. Musakola, lar., 10.00.
Kad., neskek: Hondarribia - Benetton. Hondarribia, lar., 16.00.
Andraitz - Arrasate B. Legazpia, lar., 12.00.

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Arrasate 8 - Durango 18

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Karmelo 22 - Arrasate Kirolak 27
2. eskualdekoa: Ereintza 24 - Arrasate Kirolak 19

Pilota

Euskal liga (arrasatear guztiak kanporatuta dagoeneko):
Jub., banaka: Soraluze 18 - Arrasate 5
Senior, banaka: Errioxa 18 - Arrasate 13

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Murugaindik has gaitezen

Naturaren defentsarako neurri bereziak hartzen saiatzea, aspaldidanik dator. Txinan, Pertsiar Inperioan eta Egyptoko leku batzuetan, gizakien eragina murriztea erabaki zen, batez ere, animaliak egoera onean mantentzeko. Garai hartan, ehizak garrantzi handia baitzuen. Pixkanaka egoera aldatzen joan zen XVI. mendean, arrazoi etiko eta estetikoek, lehen lekua ematen hasi zirelarik. 1.872. urtean, Estatu Batuetako Yellowstone izugarritzko lursaila parke nazional izendatu zuten, eta, lehen aldiz "parke nazional" deritzaien babespen mota honi, orain duela esanahia eman zitzaion.

Gure Euskal Herri honetan ere, naturaren defentsarako lehenengo pausoak ematen hasiak dira. Nafarroan gehiago badira ere, Euskal Komunitate Autonomoan, bi gune bakarrik izan dira izendatu dira parke natural: Urkiola eta Valderejo. Urdai-baiko Biosfera ahaztu gabe, Aralar eta Gorbea parke izendatzeko aurreproiektuak aurreraturik omen daude. Beste batzuk ere itxoitzen daude, hauen artean, guri zuzenean



tokatzen zaiguna Aitzgorri-Elgea mendikatea.

Neurri orokor guzti hauek beharrezkoak ditugu, baina, hauek datozen bitartean, gure mendiak egoera larrian aurkitzen dira, beraz, zerbait egitea derrigorrezkoa da. Deba Bailararen inguruko mendi gehienek egoera txartzat jo daiteke: Aloña, antenaz josirik; Urbia/Aitzgorri, hondakin gehiegirekin eta pistaz josita; Besaide, pistaz eta kotoz beteta; Mugarriluzen, pista, antena eta kasetak bat eraiki nahi dute...

Hitz handietatik txikieta-

ra -eta egunerokora- pasatzea latza gertatzen zaigu askotan, baina, lan zehatz hau gabe, ez dago naturaren defentsarik. Horregatik Murugain buruz zertxobait esan nahi nuke. Mendi hau egoera larrian egoteaz gain, neure bihotzeko mendia delako.

Nahiz eta "Aranzadi"n ikerketa sailak, aztarna arkeologikoak daudela baieztatu, lehen Aretxabaleta eta Arrasateko udaltzaingoaren transmisiorako kasetak, RTVErentzako beste kasetak bat eta, Arrasate telebistarentzako posteak ez direla nahiko diru-

di. Telefonoak, telekomunikazio estazioa jartzeko lanak bukatzeaz daude, beste antena bat eta honentzako kasetak eraiki dituzte.

Ezin dugu antenak gure mendi guztietan jartzen utzi. Ez dakigu telebista ikusi edo antzerako gauzetarako, zenbat denboran antenak behar izango diren, baina jartzen badira, pistak egitea eta ingurua suntsitzea betirako da.

Mendizale eta naturaren aldeko jendeok, gure mendiak zaintzeko horrelako neurri batzuk proposatu beharko genituzke:

- Antenarik ez dagoen mendietan, bat bakarra ere ez jartzea.

- Pistak dauden tokietan, naturarekiko eragina gutxitzeko, zuhaitz autoktonoak alde bietan landatzea, dena den, pista hauek asfaltatzea debekatuta egon beharko litzateke.

- Baserri-lan, abeltzain, edo mendi jabetzarekin zerikusirik ez dutenen motor-dun ibilgailuei mendietatik pasatzea debekatzea.

Murugaindik has gaitezke.

MIKEL OLABE



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

ZER NAHIAGO?

Kontxi Saez Fagor Etxe-Lan etxekoa



- Zer jantzi zenuen ihauterietan? Trapu batzuk jantzi nituen eta listo.
- Zer esango zenioke mutil polit bati? "Nora hoia, bonboia!"
- Eta inoiz zuri esan dizuten gauzarik politena? Uf! Ez dut gogoratzen.
- Zer uste duzu dagoela heriotzaren atzean? Ezer ere ez, duda asko dauzkat.
- Zein kolorekoa da zure logelako hormako papera? Txuria.
- Gau martxoso bat igarotzeko, nora joango zinateke? Eibarrera edo Donostiara.
- Zer edaten duzu larunbat gauetan? Ura edo zumoa, alkoholik ez.
- Zer datorkizu burura "politika" hitza entzutean? Nahaste hutsa.
- Zer iritzi duzu "Guggenheim" proiektuaz? Sekulako gastua, astakeria bat.
- Ikusten duzu ATB? Eguerdietan bakarrik.
- Txikitán irakurtzen zenituen komikiak? Bai, Asterix eta Obelix-enak, baita Mafaldarenak ere; oraindik irakurtzen ditut..
- Egunean zenbat aldiz hitzegiten duzu telefonoz? Dendan, 200 bat aldiz.

BERTSOAK


Arabatarren zorigaiztoko txoria

Arrasatetik alde aldean dago ta, arabarrakin sarri gabiltza nastuta; "marika" etxekoa duten txori mota; alare ez daukate asko maitatuta.

Deitura txarrekoa dalako "marika", kalte egintzallea xirrika xirrika; alde-batetik jaiki, bestera korrika; etxetik ezin dute atera arrika.

JOXE MANUEL ARRIOLA

94ko ezkongaiak



BIKOTE SARITUARENTZAT ERREGALIAK 94KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

ERREGALIAK

ANDREGAIAREN JANTZIA
SENARGAIAREN JANTZIA
ZILARREZKO EZKON DIRU
EZTAI EGUNERAKO CAVA
EROSKETA TXARTELA
SUKALDERAKO MAHIA ETA AULKIAK
BAXERA ETA KRISTALERIA
ETXEKO POLIZA ETA BIZI ASEGUROA
CANARIASERA BIDAIA

ETXEAK

BAYON (Donostia)
TAYLOR (Vitoria/Gasteiz)
KAREAGA (Eibar)
CODORNIU
ARKAUZ HALTZARIAK (Aretxabaleta)
IKER (Mondragón)
TUIN'S (Donostia)
OCASO ASEGURO ETA BERRASEGURUAK (Eibar eta Beasain)
EROSKI BIDAIAK (Donostia)

ZOZKETA: OTSAILAREN 25an

1995ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmoan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 25a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 94KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA _____

(izen deiturak)

(helbidea)

ANDREGAIA _____

(herria)

(telefonoa)

(izen deiturak)

(helbidea)

(herria)

(telefonoa)

Ezkontza eguna (gutxi gora behera) _____



RADIO POPULAR
LOIOLA
HERRI IRRATIA

Jose Ramon Fernandez

Euskal pintoreak kreaizaile baten ikuspuntutik

Laster 50 urte, "mundrauetarra" berak errei-bindikatzen duen moduan. MCCn lan egiten du. Sormen edo kreatibitatearekin zerikusirik duen guztiarekin arduraduna da. Bere pintura-zaletasuna dela eta, Euskal Pintoreei buruzko liburu eder bat presatu du. Dagoeneko bigarren edizioan doa.



gazteena.

—Zela izan da liburua tajutzea?

— Abuztuan egin nuen, denbora-tarteka egindako lana da, afizio moduan hartuta. Lehenengo ediziorako beste enkuadernazio bat eta itxura bat eman nion. Fetxa eta antzeko datuen bilketa egin nuen beste obra batzuetatik, eta gero literatura sartu diot autore bakoitzari buruzko komentarioari. Iritziak, anekdotak sartu ditut, publiko orokorarentzako moduko liburua izan dadin.

Liburu hau Korporazioan erregalo moduan erabiltzeko izango da.

— Ze pintore sartu duzu aukeraketa honetan?

— Liburuan agertzen diren pintore guztiak hilda daude, baina hemendik 200 urtera ere gogoratu eta aipatuko direnak dira. Gutxi gora behera, 1850 ingurutik hasi, eta Simon Arrieta bergararra ere sartzen da, bera da

— Enkarguz edo zeure borondatez egindako liburua da?

— Erdi enkarguz, erdi neure borondatez, azkenean gaia neuk aukeratu dut, eta neuk pentsatutako modura egin dut eta gero jakin ere egin behar da.

— Pintatzeko afizioa ere baduzu, ezta?

— Afizioa... ni pintore potentziala naiz, baina ez praktikantea. Orain urte mordo bat dela lehen saria irabazi nuen "Gipuzkoako Pintoreen lehiaketan".

— Eta zer lan mota egiten duzu?

— Post-inpresionista estiloa gutxi gora behera hor nonbait, baina gero beste gauza bat pasatzen da, normalean pintore batek jarraitzen bere batekin lan egiten duenean bere estiloa edukitzen

du, baina zerbait egin eta gero urte mordo baten ezer egiten ez baduzu, berriz hasitakoan ez da estilorik izaten, hasitakoan egiten duzuna besterik ez. Linea bat edukitzeko kontinuitate bat behar da. Bestela, karikaturak eta horrelakoak bai, egiten ditut, baina momentu baten egiten diren gauzak dira horiek. Bestela kuadrorik ez dut pintatzen. Zoritzarrez, txarra naiz.

— Pintore gustokoenak?

— Nire gustokoenak ez dira hemen agertzen direnak, ez dira euskaldunak. Ohiturei buruzko liburu bat egin nahi nuenez, Euskal Herriko pinturaren aukeraketa bat egin dut. Hemengo pintoreak ez dira kanpokoak bezain onak. Hemen beste kultura batzukin konparatuz gero, ez daukagu maiuskuladun kultura bat, subkultura bat baino. Orduan, nire gustokoak Rembrand, Bernard... asko dira. Ni ez naiz kapaz horri erantzuteko.

— Ze kolorez pintatuko zenuke bizitza?

— Erantzun serioa edo... beno, momentuaren arabera. Koloreak ez dira politak, zatarrak, argiak, ilunak, depende alboan zer duen. Eta hori kolore denekin pasatzen da, ondo ezkontzea da. Bizitzarekin beste horrenbeste gertatzen da.

LABURRAK

Maitale goxoena


San Valentín egunean jakin genuen maitaleari gauzarik goxoenak esaten trebeena nor den. 69 gutun guztira, 38 Deba Garaikoak, 25 bergaratarrak eta zazpi mondrauetar. Datu gehiago nahi baduzu, %59'4a, neskek idatzitako gutunak ziren, beste %40'5a, mutilek idatzitakoak, badirudi, neskak finago dabilzala gai honetan. Kontuak kontu, Ekhñe Egiurenek, 15 urteko donostiarrak irabazi zuen lehen saria, "Michel" izeneko gutunarekin.

Bigarren saria, mutil batek eskuratu zuen, Jon Sanchez bergaratarrak; 18 urtetako gazte honek, "Irene Versus Katy" izenburuko gutunarekin irabazi zuen. Bi akzesitak, Roberto Eizagirrek, 32 urteko eibartarrak eta Ohiana Etxebarriak, 21 urteko atxabaltarrak eraman zituzten, "Bi maitasun amets" eta "England" izeneko gutunekin.

Arte Ederretako ikasleen erakusketa

Harresi Aretoan, Arte Ederretako ikasleen pintura, grabatu, eskultura eta argazkien erakusketa, zure zai dago, otsailaren 4tik

19a bitartean. Ordutegia: Egunero arratsaldeko 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan, goizez 12etatik ordu 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño. 6
Tfnoa. 76 06 78
ARRASATE

“Kakatua berdea”: Paris iraultzailea teloi artean

“Arteszena” Gipuzkoako Teatro Publikoaren “Kakatua Berdea”, gurera dator. “Arteszena”n, arte dramatikoa, dantza eta lirika lanak ekoizten dira. Maribel Belastegi eta Fernando Bernués dira Arteszenako zuzendariak eta testu honek duen interes dramaturgikoak eraman zituen aukeraketa hōnetara. Eneko Olasagastik egin du gaztele-ratik euskerarako itzulpena egin du.

“Kakatua Berdea” joan den urteko azaroan estreinatua zen Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

MARIO GAS, ZUZENDARIA

Mario Gas 1947. urtean jaiotako aktore eta zuzendari-a Bartzelonarra dugu. Aktore gisa egin dituen azken lanak, Jorge Lavelli-ren “Doña Rosita o el Lenguaje de las flores”, edo eta berak zuzendutako “La Ronda” izan dira, beste batzuen artean. Zuzendari gisa berriz, Bartzelonako Grec Teatroan izandako ziklo o-peristikoetan lan egin izan du.

ARTHUR SCHNITZLER, AUTOREA

Vienarra. 1862tik 1931ra bitartean bizi izandakoa. Txi-kitandik izan zuen poesiare-kiko grina. “Joven Viena” ize-neko idazle taldearen burua kontsideratua izan zen. Schnitzler, antzerki obra umoris-



Kakatua Berdea tabernan bilduko dira Arrasaten ere, aristokratik.

tiko eta sentimental batzuen bidez egin zen ezaguna. Antzerki hauetan, XIX. mende-ko Viena dekadentean bizi zen giroa oso ondo isladatu zuen eta XIX. mendeko azken hamarkadan, arrakasta lortu zuen. “Kakatua Berdea” dena den, beste garai eta ezenatoki desberdin batean girotua dago: 1899. urteko Paris iraultzailean hain zuzen. 1914rarte, Vienako autore errepre-sentatuena bihurtu zen. 1918. urtean Vienak jasan zuen derrotarekin, Schnitzler-i mundua etorri zitzaion eta bere azken urteak, guztiz isolatuta pasatu zituen, konpreni le-zakeen inor gabe eta herio-tzaren ideiarekin guztiz obse-sionatuta.

“KAKATUA BERDEA”, MAMIA

“Prospère”ren “Kakatua Berdea” tabernan girotzen da istorioa. Taberna horretara, Pariseko nobleak joaten dira, tabernako aktoreek inpro-bisatzen duten pobre eta baz-tertuen parodiekin barre egi-tera. 1789. urteko uztailearen 14an, iraultza gertatuko da, eta nobleak, gertakizun ho-netatik babestu nahiean, “Kakatua Berdea” tabernara joaten dira gauero kaleek erakusten duten erre-alitatea eskibatu ahal izateko. Aristokraten eta tabernako akto-reen arteko tirabirek, istorio-aren garapenera garamatzate.

Antzerki obra honek, 60 bat milioitako aurrekontua

izan du. Honek, antzerki konpainia pribatuaren protes-tak sortarazi ditu, kulturaren alor honi ematen zaizkion subentzioak oso urriak direla eta. Dena den, ezin uka daite-ke aurrekontu milioinaria hori, ondo inbertitua egon denik. Arrasatearrok, otsaila-ren 19an ikusi ahal izango dugu obra bertsio euskaldu-nean gaueko 10.30etan eta prezio onean, 700 PTAtan. Otsailaren 17an eta 18an euskarazko emanaldietan Arrasate, Bergara eta Oñatiko ikas-tetxeentzat erre-presentatu da obra. Gaztelaniazko emanal-diak, otsailaren 21ean izango dira, ikastetxeentzat soilik.

Ez zara damutuko ikuste-ra joan ezker.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

ARRASATE PRESS

PUBLIZITATEA



77 08 15




HAURTUOA

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Danok-Bat elkarteak lokala estrinatu du.

D

anok-Bat elkartearen hasieratan ateratako erretratu honetan, fundatzailetako bi ageri dira berriro: **Frutos Eraña "Kaxo"** eta **Felix Arenaza "Paparbaltz"**. Gerra aurretik, 1935eko martxoan sortu zen ofizialki elkarte.

1934an "Salafiestasa" jartzeko asmotan ibili ei ziren, baina oztopo asko aurkitu zuten, Gobernadorearen debekua tartean. Orduan, Donostian zeuden elkarte horien antzekoa egitea bururatu zitzairen, lagun baten lokalean. Hasiera baten lagun talde baten tertulia izan nahi zuen hark, Santiago Bastida eta Modesto Zuluetak geroago gogoratzen zuten. "Ardau botila baten inguruan musean egiteko edo batzuen zaletasun gastronomikoetarako egunero biltzeko lekua".

Idea hark arrakasta handia izan zuen herrian, Arrasateko lehen Elkarte zen, eta Donostiako 'Santxisito y su

konparsa' fanfarrea etorri zen. Herritar askok egin nahi izan zuen elkarteko bazkide, eta hasierako bazkide kopuruaren muga zabalduz eta zabalduz joan behar izan zuten.

Datu aipagarri batzuk:

- Hasierako kuota 2 pezetakoa zen hilean.

- Lokala garbitzeko emakume bat kontratatzea erabaki zen hasieratik, aktan jasotzen denez, "Elkartearen seriotasunerako, 35 eta 50 urte bitarteko emakumea". Hilean 30 pezetako soldata ezarri zen, eta Ana Zubizarreta hartu zuten langile.

- Errioxa aldera eta, hainbat eskurtsio egiten zen.

- 1936ko uztailaren 18an

gerra hasi zenetik 1946ra oso datu gutxi dago, bilera gutxiren berri dago jasota. Tartean anekdota bi: Bazkideak Falangean izena emateko etorritako "gonbidapena" zela eta, hamabost eguneko epean izena ematen ez zutenei baja ematea erabaki zuen Danok-Bateko juntak.

Errepresioaren beldurra zenbaterainokoa zen ikusteko, preziekin elkartearen zegoen kuadroan Danok-Bat izenari norbaitek kendu egin zion "K" letra, euskarazkoa zela eta.

Gerora, beste elkarte batzuk jarri zirenean, 1960an sortu zen S.U.D.C., San Isidro, Udalpe, Danok-Bat eta Casinoren lehen letrekin.



Mondeo

M MUGARRI



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

Euskal dantza ikastaroa



Love Gaztea dantza taldearen eskutik

15 urtetik gorakoentzat
Martxoaren 11tik San Juanetara
Matrikula: 1000 PTA

Izen-ematea:


Gazte bulegoa

• AIPUA •

"Gizaki baten handitasuna beren pentsamenduen tamainaren arabera neurtzen da".

MANERO

• JEROGLIFIKOA •



Zerk eramango gaitu urrutira?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12			13				14
15		16			17		
18			19	20			
21							

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Ganadua egoten den lekua. 9. Irabazpen. 10. Hegazti enbor-zulatzaila. 11. Ez eme. 12. Nafarroako ibilgailuetan. 13. Bezainbeste. 15. Garo. 17. Mitra. 18. Gogoramen. 21. Nabigatzen duena.

Bertikalak 1. Hilzorian. 2. Aintzane Gardokiren ATBko programa. 3. Gaixo. 4. Geza. 5. Titanioa. 6. Jujatua. 7. Txiza. 8. Egin hitzaren kontrakzioa. 14. Burutsu. 16. (Ald.) Suge handi eta pozoigabea. 19. Atzizkia. 20. Diegoren kontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

Aries Irribarre faltsu horrek zure hortz ustelak agerian uzten ditu.

Taurus Beti ikasketetaz pentsatzen egon ezker, azkenean estresatuta bukatuko duzu.

Gemini Hobe da bat seguru, bi atzetik baino.

Cancer Hasi aste honetan gastatutako dirua aurrerantzen.

Leo Hankako min hori zure irudimena besterik ez da.

Virgo Norbait atzetik dabilkizu, baina ez dizut nor den esango.

Libra Maitasuna zure puntu debila da. Hobe duzu beste zerbaiteaz pentsatzen hastea.


Scorpio Gerora begira zerbait izan nahi baduzu, zure izakera aldatu egin beharko duzu.

Sagitarius Inspirazioa heldu zaizu! Hauxe duzu bertsoak asmatzeko unerik egokiena.

Capricorn Urteetan aurrera zoazen arren, oraindik haurtzaroan zaudela iruditzen zait.

Aquarius Asteburu honetan zortea izango duzu, ez dakit zertan, ordea.

Piscis Erretzeari uzten ez badiozu, zure bizioa laster osasun-arazo bihurtuko da.



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

• JOSE ANGEL IBORRAREN GOMENDIOA •



Jose Angelen gomendioa besteengan apur bat pentsatzea da. Beti norbere buruari begira egon barik, bizitzan arrakasta izateko era bat da bere ustez beste arreta jarri eta zer pentsatze eta sentitzen duten galdetzea. "Hain mundu industrializatu eta bortitzean inork ere ez du besteengan pentsatzen, eta gaur egun bizi ditugun gerra eta gatazka egoeretan konponbiderako modua izango litzateke. Bizitzan arau hau bagenu, giza-harremanak zoragarriak izango lirateke". Taxista lanean psikologo eta konfesore lanak egitea ere tokatzen ei zaio, "baina harreman publiko irekiak lortzen dira, jendeak esan nahi duena entzuten ikasten da".

• PROGRAMAZIOA •

**20 Igandea**

20.00etan
Astebete errep.
20.30etan
Mondragol

21 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Astebete errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia: "Eurigizona"

22 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport errep.
14.05etan
"Eurigizona" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Bi hiritako gertakizunak"

23 Asteazkena

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
"Bi hiritako gertakizunak" errep.
20.00, 20.30, 21.00tan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan
22.00etan
Dokumentala: "Intsektuak; ura"


24 Osteguna

13.30etan
Berriak
13.35etan
Pareak Jokuan errep.
14.05etan
Dokumentala errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Natxo de Felipe
22.00etan
"Behiak"

25 Ostirala

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka errep.
14.05etan
"Behiak" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren eguna: "Isidoro"

• KOMIKIA •



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

• SOLUZIOAK •

GURUTZEGRAMA
Horizontalak 1. Abeltze 9. Gari-
pen: 10. Okil. 121. Ar. 12. Na. 13.
Adina. 15. Ira. 17. Tur. 18. Akordu.
21. Nabigari.
Bortikalak 1. Agonian. 2. Bakarka.
3. Ert. 4. Lala. 5. Tr. 6. Epatua. 7.
Gernu. 8. In. 14. Argl. 16. Boa. 19. Ri.
20. Dg.
JEROGIFIKOA
Bide luzeak.

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Torremolinosen** apartamentu-estudioa salgai. Haundia, herriaren erdikaldean, jantzia, 2. pisua, igogailu, igerilekua, salariuma, atezaina...Prezioa: 3.250.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Bi oheko logela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza salgai Uribe Auzoan.** 90 m². 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik 3etara.
- **Etxebizitza behar da alokatzeko.** Tfnoak: 79 23 80 - 79 86 75. Iker.
- **Etxebizitza salgai Maala kalean.** 75 m²takoa. Sukaldea, bainua, 3 logela, jangela eta etzalekua. Guztiz kanpoaldekoa. Tfnoa: 79 34 54.
- **Hutsik duzun etxebizitza txiki hori** neuretzako modukoa da. Alokaturko didazu? Tfnoa: 79 01 66. Gaez.
- **Etxebizitzak salgai Olarte kalean Bizkaia Etorbidean,** 12 -4. Tfnoa: 79 87 47. (Eguerdian).
- **Baseri bat hartuko genuke** ardiak zaintzeko. Tfnoa: 76 62 64. Imanol.
- **Bi oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje salgai.** Irekia(marraduna). Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24. Eguerdietan.
- **Maiatzetik edo ekainetik** aurrera etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 77 12 00. Yolanda (Ikerlan).

Lana

- **OHOko klaseak ematen dira** taldeka nahiz banaka. Dei egin 2.30etatik aurrera. Tfnoa: 79 90 46. Rakel.
- **Etxe-garbitaketak** egingo nituzke. Dei egin gabez 77 06 25 tfnora. Miren.
- **Pianoak afinatzen dira.** Tfnoa: 945-44 52 85. Aramaixo.
- **Emakume euskalduna** umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- **Uribe auzoan janari denda** traspasatzen da. Prezioa: 1.500.000 PTA. Tfnoa: 76 52 80.
- **Emakume euskalduna** eskaintzen da laguntzailer gisa, haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Marrazki geometrikoko** klase partikularrak jasoko nituzke. Ostiral arratsaldez edo asteburuetan. Tfnoa: 79 06 60.
- **Eserientziadun neska** umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 77 94.

Denetarik

- **Zilarrezko boligrafoa** galdu nuen urtarrilaren 8a aldera San Andresen. Boligrafoak VICENTE A. izena darama grabatua. Aurkitu ezker, 79 94 01 tfnora deitu. (Vicente Alonso).
- **Gabon zaharreen txamarra** bakeroa galdu nuen Lorategi tabernan. "On the road" markakoa. Tfnoa: 79 86 69.
- **Larruzko kartera galdu** zitzaidan asteazkenean edo. Tfnoa: 79 46 61.
- **Belarritakoa galdu zait.** Zigarrola eta Ertzaindegiaren artean. Luzea da eta perla bat du. Dei egin 79 32 90 tfnora.
- **Hiru giltza galdu ditugu** Altamira, Santa Ageda edo Erguin inguruan. Aurkitu badituzu dei egin 77 09 03. Igone.
- **Belarritakoa galdu zitzaidanotsailaren 3an.** Urrezkoa eta perladuna. Omega itxidura. La Merded elizan. Tfnoa: 79 07 48. Aurora Corcuera.
- **Otsailaren 23tik aurrera,** egunero Bilbotik Arrasatera etorri behar dut 8,30etan. Zuk ere bidaia hau egin beharra baduzu, deitu mesedez. Tfnoa: 79 06 45. Miren.
- **YASHICA argazki kamara** galdu zitzazkidan igandean Aretxabaletako Kutxako sukurtsalaren inguruan. Aurkitzen baduzu, dei egin 79 94 83 tfnora. Lorea.
- **Malagara joan behar baduzu,** bi arrasatear aurkituko dituzu Zensen. Ttukuna eta merkea. Erreserbak: 952 31 72 00

Salerosketak

- **Volkswagen "escarabajoa"** salgai. Horia. SS-M. Tfnoa: 79 81 25.
- **Renault Twingo salgai;** berria da, lehiaketa batean irabazia. Tfnoa: 79 65 00. Marisol.
- **Trabesiako bota batzuk,** 42 zenbakikoak, Koflach markakoak. Egoera onean. Tfnoa: 79 39 88.

Aste Gazte

Lana

• Gasteizko Udalak enplegu Eskaintza Publikoa argitaratu egin du, guztira 166 lanpostu.

Bekak

• Lanbide Heziketa ikasketak burutzeko bekak, minusbalia fisikoa duten 17-40 urte bitartekoei zuzenduak. Espezializate ezberdinak. Epea: martxoak 23.

Euskal Dantza

• 15 urtetik gorakoei zu-

zendutako ikastaroa, Lore Gazteak-enskutik. Martxotik San Juanetara. Ostirale-tan, 7etatik 8.30etara. Matricula: 1.000 PTA. Plaza mugatuak. Inskripzioak: Gazte Bulegoan.

Eski Kanpainak

• Besaide: Eskiatzera joan nahi duten ikasle eta langabetu guztiek 1.000 PTAko beherapena izango dute eski ikastaroetan.

• Diputazioa: Asteburuko irteerak Candanchura,

prezioa: 7.400 PTA. Astebeteko irteerak Pal-era (Andorra); prezioa: 27.000 PTA. Plaza mugatuak.

Lehiaketak


• Eibarko Udalak antolatuta, "Toribio Etxebarria" enpresa munduko ideien V. lehiaketa. Sustatzaileei, banaka edo taldean aurkezten direnei eta lantegi edo enpresei zuzendua. 3.000.000 PTAko saria. Epea: otsailaren 1etik martxoaren 31 bitartean.

"Osasuntsuak zarete, gazteak, neskatila batzuk — esaten zuten—, buruhausterik ez duzuela igertzen da"

CESARE PAVESE, 'LA BELLA ESTATE'



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

PROMOZIOA FAGOR 

%40ko beherapena
Apirilaren 30era arte
BAKARRIK



Jose Aranxabal

San Andres auzoa Tfnoa: 79 18 92



NIRE AUTOA BAZINA AUTO HAU IZANGO ZINATEKE.

McCANN



BERTSIOAK: 3 eta 5 ate

MODELOAK: CITY, SWING, SPORT, JOY Automatikoa, GLS y GSi.

MOTOREAK: Gasolina Injekzioa 1.2 (45 CV), 1.4 (60 y 82 CV),
1.6 16V. (109 CV); Diesel 1.5(50 CV) eta Turbodiesel (67 CV).

OPEL CORSA
NIRE AUTOA



Patrocinador Oficial
del Mundial de Fútbol
USA 94

OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U



TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Erakusketa **ARRASATEN**: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

Zerbitzu Ofiziala **ARETXABALETAN**

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.